



ZIOEN AZALPENA

Bizkaiko Foru Aldundiak, berez dagozkion eskumenen eremuan eta Gizartekintza Sailaren bitartez, urtean-urtean ezarri izan ditu era ezberdinetako dirulaguntzak gizarte zerbitzugintzan laguntzaile diren erakundeentzat eta udal erakundeentzat, horretarako beharrezkoak diren ekonomi zainpeketak Bizkaiko Lurralde Historikoaren urte bakoitzeko aurrekontu orokorretan gorde eta dirulaguntzotarako deialdi publikoak foru dekretuz onetsi dituelarik, Bizkaiko Lurralde Historikoaren ekonomi araubideari buruzko urriaren 14ko 10/97 foru arauan ezarritakoa betetzeko, berorretan ezartzen baita, laguntzen eta dirulaguntzen emakida agerikotasunaren, lehiaren eta objekibotasunaren abiaburuen arabera egingo direla eta haren oinarri araupetzailak foru dekretu baten bidez onetsiko direla.

Bestalde, Bizkaiko Batzar Nagusiek, 1997ko abenduaren 19an eginiko osoko bilkuran, Bizkaiko Lurralde Historikoaren 1998ko ekitaldirako aurrekontu orokorrak onetsi zituzten, abenduaren 19ko 14/97 foru arauaren bitartez. Bizkaiko Lurralde Historikoaren 1998rako aurrekontu orokor horietan, Gizartekintza Sailari dagozkion egitarau eta partidetak kapituluetan, hain zuzen, foru dekretu honen deialdipeko dirulaguntzen ordainketari aurre egiteko beharrezkoak diren zainpeketak aurrikusita daude. Hori dela bide, «Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Araubide eta Funtzionamendua»ri buruzko otsailaren 13ko 3/1987 foru arauko 17 eta 64.3 artikuluek emandako ahalmenak erabiliz, Gizartekintzako foru diputatuak proposatu eta Bizkaiko Foru Aldundiak 1998ko martxoaren 3ko bileran eztabaidatu eta onetsi ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

1. artikulua.—Xedea

Foru dekretu honen xedea Bizkaiko Foru Aldundiak lehia soilaren bidez gizarte zerbitzuen arloan 1998ko aurrekontuko ekitaldian zehar hurrengo eremuotan emakidatuko dituen dirulaguntzen deialdi publikoa onestea da:

- a) Ume, gazte, familia eta andrazkoei laguntza eman eta bergizarteratzeko dirulaguntzak (I. kapitulua).
- b) Adinekoei laguntza eman eta bergizarteratzeko dirulaguntzak (II. kapitulua).
- c) Minusbaliatuei laguntza eman eta bergizarteratzeko dirulaguntzak (III. kapitulua).
- d) Laguntza berezia behar dutenei laguntza eman eta bergizarteratzeko dirulaguntzak (IV. kapitulua).

2. artikulua.—Onuradunak

Behar den moduan eskatuz gero, jarraian adierazten direnak onuratu ahalko dira dirulaguntza hauez, hots:



1. Bizkaiko Lurralde Historikoko udal erakundeak.
2. Bizkaiko Lurralde Historikoaren barruan diharduten erakunde publiko nahiz pribatuak.

Beti ere honako baldintzok betetzen badituzte:

- a) Legez eratuak izatea.
- b) Irabazasmorik ez edukitzea.
- c) Zerga-betebeharretan eta Gizarte Segurantzakoetan ordainketak egunera arte beteta dituztela egiaztatzea. Bizkaiko Lurralde Historikoko udal erakundeak baldintza hau bete beharretik salbuetsita daude.
- d) Hala balegokio, Gizartekintza Saitetik aurrez jasotako ekonomi laguntzak behar bezala justifikatuak izatea.
- e) Helburuak beteko direla bermatzeko behar adinako egitura eta gaitasuna izatea.
- f) Baliabideen erregularizazioan eta dagoen eskaria betetzen eskudun erakunde publikoekin elkarlanean aritzeko konpromisoa hartzea, haien zerbitzuen berezitasunekiko begirunez.

3. artikulua.—Dokumentazioa

1. Dirulaguntza-eskabideak foru dekretu honi eranskin gisa batu zaizkion eredu normalizatuak erabiliz aurkeztuko dira, minusbaliaren bat duten pertsonen laguntza eman eta bergizarteratzeko dirulaguntzetarakoak eta jubilatuena etxe eta elkartei laguntzeko dirulaguntzetarakoak alde batera utzita, horietarako eskabide eredu bereziak egongo baitira. Aldi berean, eskabideari kapitulu bakoitzean zehaztutako agiri gehigarriak batu beharko zaizkio.
2. Administrazio Publikoen eta Baterako Administrazio Prozeduraren Araubide Juridikoari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 35. artikuluko f) atalean xedatutakoaren arabera, eskatutako agiriak ez dira zertan ere aurkeztu behar izango agiri horiek Administrazio jardulearen organoren bateren, edozeinen, eskuetan egon eta aldaketarik izan ez dutenean; horrelakoetan beti ere non aurkeztu ziren edo, hala denean, nork luzatu zituen, organoa edo bulegoa, eta data, jakinarazi beharko da, idatziz, beti ere agiri horien prozedura amaitu zenetik bost urte baino gehiago igaro ez bada. Agiria lortzea ezinezko gertatzen denean, eskudun organoak erakunde eskatzaileari agiri hori aurkez dezan edo, hori ezean, agiri horretako beharkizunak beste era batera egiazta ditzan eskatu ahal izango dio, ebazpen proposamena egin baino lehen.
3. Memorian nahiz aurkeztutako agirien artean, egia adierazten ez duen daturik balego, eta hori egiaztatzen bada, horrek eskatutako dirulaguntzari uko egitea erakar dezake, datuen garrantziaren arabera, ondoren gerta daitezkeen gainerako erantzunkizunen kaltetan jo gabe.

4. artikulua.—Eskabideak eta epeak

1. Eskabideak honako hauek egin beharko dituzte:
 - a) Indarreko Toki Araubidean xedatutakoaren arabera, horretarako eskumena duen organoak, beti ere dirulaguntzak udal erakundeei ematekoak direnean.
 - b) Erakundearen gobernu-organoen legezko ordezkariak, haren estatutuetan ezarritakoaren arabera, edo horretarako legezko ahala duten pertsonen zentro edo erakunde publiko nahiz pribatuei emateko dirulaguntzak direnean.



2. Eskabideak Gran Vía k/ 26 zk.an, beheko solairuan, jasoko dira eta Bizkaiko Foru Aldundiko Gizartekintza Saileko Erregistroan aurkeztu. Bestalde, azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 38. artikuluan xedatutako bideetako edozeini jarraituz ere bideratu ahalko dira.

3. Eskabideak aurkezteko epea foru dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunaz geroko 20 asteguneko izango da, (epe hori zenbatzeko, igandeak eta jaiegunak zenbaketatik kanpo utziko dira, larunbatak ez ordea, berauek asteguntzat joko dira eta).

4. Eskabideak behar den moduan bete barik aurkezten badira edo beharrezko agiriren bat falta bada, erakunde eskatzaileari agindeia egingo zaio, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 71.1. art.an xedatutakoarekin bat etorriz, hamar (10) asteguneko epean akatsak zuzendu eta derrigorrezko agiriak aurkez ditzan, horrela egin ezean, eskabidea atzera egindakotzat joko zaiola eta, horrenbestez, hura bestelako tramiterik gabe artxibatuko dela jakinaraziz.

Agindeiaren ondoren aurkezturiko Ogasunaren eta Gizarte Segurantzaren ziurtagiriei dagokienez, eskabideak aurkezteko epearen barruan zorrik ez dagoela adierazten dutenak baino ez dira onetsiko. Zorra aipaturiko epetik kanpo kitatu dela adierazten duten ziurtagiriak, aldiz, ez dira onetsiko, eta eskabidea bestelako tramiterik gabe artxibatzeari ekingo zaiok.

5. Beharrezkotzat jotzen denean, Gizartekintza Sailak, prozeduraren barruan edonoiz, bidezkotzat jotzen duen edozein agiri eskatu ahalko dio erakunde eskatzaileari, bai eta, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 76. art.an xedatutakoaren arabera, eginiko eskabideen ebazpenari ekiteko bidezkotzat jotzen duen aldera utzitako bestelako beharkizun edo tramiteren bat bete dezala ere; horretarako, jakinarazpenaren egunaren biharamunaz geroko hamar (10) asteguneko epea emango dio hari eta, horrela egin ezean, eskabidea atzera egindakotzat joko zaiola ohartaraziko zaio.

5. artikulua.—Irizpideak

1. Dirulaguntzak emakidatzeko orduan erabiliko diren beharkizun zehatzak eta jarraituko diren irizpideak, hurrengo kapituluetan adieraziko direnak izango dira. Edozelan ere, foru dekretu honetan araupetutako dirulaguntzek horretarako ezarritako aurrekontuko zuzkidura egokiak izango dituzte mugatuz, ondorioz, ez da nahikoa izango eskatzaileak kapitulu bakoitzean ezarritako baldintza eta beharkizunak bete izatea, horrez gain eskatzaile horren eskabideari aurrekontuko zuzkidura egokiak kontuan hartuz konponbidea eman ahal izatea eta beharko da.

2. Dirulaguntzaren helburua lortzeko kontratatutako langileriarik dagozkion gastuak ere dirulaguntzagai izango dira, alabaina, erakundeen/zentroen zuzendaritzetako edo kontseiluetako kide legez eginiko jarduerengatik sortarazitako gastuak ezin izango dira langileri gastuotan sartu, haiek dirulaguntzaren helburuari loturiko berariazko lanak egiteko lan-kontratupean egon eta beharrezko titulu egokia eta behar adinakoa ez badute.

3. Higiezinak eskuratzeko maileguen amortizazioari eta finantza gastuei ezin izango zaie dirulaguntzarik eman.

4. Emakidaturiko dirulaguntzen zenbatekoa, soilik, edo nazioko zein nazioarteko beste administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatu batzuek emandako dirulaguntza eta laguntzekin batera, ezin izango da, inola ere, dirulaguntzaz onuraturitako erakundeak garatu beharreko jardueraren kostua baino handiagoa izan.



6. artikulua.—*Ebazpena*

1. Arau bidezko espedientearen instrukzioa eginik, eta batzorde tekniko egokiak (dirulaguntzaren xedearen arabera osatua eta berez dagokion zuzendari nagusiaren zuzendaritzapean, beronek izendatuko dituen batzordekide bi eta idazkaria izango dituelarik) eskabidea aztertu, bere iritzia azaldu eta bidezko proposamena egin ostean, eskudun organoak ebazpena emango du, ebazpenerako zioak eta guzti azalduaz, eta ebazpenean, besteak beste, kapitulu bakoitzean ezarritako irizpideak kontuan hartuko ditu, eskaturiko dirulaguntza ematekoa edo ukatzekoa den esanez eta, ematekoa denean, haren zenbatekoa adieraziz, eta ebazpena interesatuei jakinaraziko zaie. Emakidatzeko eskumenari dagokionez, emakidatu beharreko zenbatekoak mugatuko du, urriaren 14ko 10/1997 Foru Arauko hirugarren xedapen iragankorrean xedaturikoaren arabera, kontratazioak egiteko organoa dirulaguntza emateko eskudun organo bera izanik.

Hala ere, premiazko kasua denean, eta dagokion Gizarte Zerbitzuak bere jardunari eutsiko badio, hura finantzatu beharra dagoenean, eskaturiko dirulaguntzaren zati bat aurrez ordaindu ahalko da, aurretiaz ereduaren araberrako eskabidea aurkeztu eta gero, hori guztiori foru dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunaz gero; ordainketa horiek deialdiaren ebazpenean kontuan hartuko dira dagokion erregularizazioaren eta konpentsazioaren ondorioetarako. Era berean, 1997. urterako dirulaguntzetarako deialdi publikoa onetsi zuen otsailaren 4ko 6/97 foru dekretuko xedapen gehigarriaren arabera eginiko aurrerakinak ere kontuan hartuko dira konpentsazioan eta erregularizazioan.

2. Dirulaguntza emakidatzeko kontuan hartu diren baldintzetan aldaketarik, edozein, badago, eta beste administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatuek, direla nazionalak, direla nazioartekoak, ematen dituzten dirulaguntzekin batera edukitzen badira, honako hauek emakidatzeko ebazpena aldarazi ahal izango da.

3. Gizartekintza Sailari dagokio dirulaguntzak aldarazi, iraungi nahiz eteteko prozedurari ofizioz ekitea, aurreko atalean adierazitakoa gertatzen denean.

Jarduketa hauek burutzen direnean administratuaren eskubide eta bermeak kontuan hartuko dira.

Honetara, alde zuzenetik entzunaldia edo albistea emango zaio interesatuari, berari dagozkion arazoibideak azal dituzan, tramite honetarako 15 eguneko epea, gehienez ere, izango duelarik.

Epealdi hori igaro eta bidezko espedienteak gauzatu ondoren, eskudun organoak bakoitzari dagokion ebazpena emango du, behin-betikoa izango dena, eta bertan dirulaguntzaren aldarazpena, iraungipena edo etendura ekarri duten kariak adieraziko dira, zein arautegi ezarri den aipatuz.

Foru dekretu honetan araupeturiko dirulaguntzen emakida, ukapena, aldarazpena eta/edo iraungipena direla-eta emandako ebazpenen aurka, berriz, ezartzeko gai den legezko arautegian ezarritako errekursoak jarri ahal izango dira.

4. Oker materialak nahiz egitatezkoak, bai eta aritmetikoak ere, edonoiz zuzendu ahalko dira beste ebazpen baten bidez.

7. artikulua.—*Betebeharrak*

1. Dirulaguntzen onuradun diren erakunde eta elkarteek honako hauek bete beharko dituzte:

a) Dirulaguntzaren emakidaren funtsa den jarduera burutu beharko dute, ezarritako moduan, baldintzetan eta epeetan.



b) Dirulaguntza emakidatu dion aginteari berehala jakinarazi beharko dio nazioko zein nazioarteko beste edozein administrazio publikok nahiz erakunde publiko edo pribatuk helburu berberarako emandako dirulaguntza edo laguntza lortu duela.

c) Jasotako dirulaguntzak gastua egin arte sortaraz litzakeen sarrerak nahiz korrituak diruz lagundutako jardueran berrinbertituko dira. Halaber, emakidari buruzko ebazpena jakinarazten denetik dirulaguntza kobratu bitartean, diruz lagundutako jarduerak burutzeko emandako kredituek sortarazitako finantza-gastuak konpentsatzeko ere erabili ahal izango dira, beti ere, finantza-kostuengatik konpentsazio horrek aipaturiko aldiaren indarrean dagoen diruaren legezko korritutik eratorritako kostua gainditzen ez duenean. Aipaturikoetarako erabiltzen ez badira, deialdia egiten duen organoak, erakunde edo entitate adjudikatarioak hala proposatuz gero, deialdi berean aurrikusitako gizarte-xedeetako beste edozeinetan erabiltzeko baimena eman ahal izango du, eta gainerakoetan bidezkoa dirulaguntza itzultzea izango da.

2. Dirulaguntzaren kontura eginiko gastuak frogatzeko agiriak 1999ko lehen hiruhilekoaren barruan aurkeztuko dira, honako agiriekin batera:

a) Agiri orokorrak:

–Erakundearen ordezkariaren ziurtagiria, honako hauek azalduz: diruz lagundutakoaren burutzapena; nazioko zein nazioarteko beste edozein Administrazio publikoren edo erakunde publiko nahiz pribaturen dirulaguntzarik lortu denentz, eta lortu bada, zenbatekoa eta zertarako den.

–Aldi berean, jasotako dirulaguntzaz, dirulaguntza jaso zenetik eta gastua egin arte, lortu diren sarrerak eta hark sortarazitako korrituak agertu beharko dira, non egotzi diren adieraziz.

b) Agiri zehatzak:

–Dirulaguntzaren helburua betetzeko egin diren gastuei dagozkien jatorrizko faktura edo ordainagiriak, 1998ko ekitaldian zehar Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrean aurkeztu diren TC1 eta TC2ren jatorrizko agiriak barne.

–Dirulaguntzaren helburua lortu dela frogatu eta azaltzen duen memoria.

Agiri horiek aurkezteko epea luzatu egin ahalko da, luzapen hori bidezkoesten duten kariak azaltzen direnean.

3. Dirulaguntzaren adjudikatarioak diren erakundeek, bestalde, dirulaguntzaren emakidaren funtsa den jarduera egin edo jarrera hartu behar izango dute, halaber, ezarri zaizkien bestelako beharkizun eta baldintzak bete eta Gizartekintza Sailak egin beharreko egiaztapen-jarduketak eta Ogasun eta Finantza Sailari dagozkion finantza-kontrollekoak onartu behar izango dituzte.

Aldi berean, dirulaguntzen jasotzaileek eskabidean aitortutako datuei buruzko inguruabar edo jazokizun guztiak jakinarazi beharko dizkiote Gizartekintza Sailari, beti ere, gertakizunak dirulaguntza hartzeari edo, bestela, egitaraututako xedeak burutzeari, funtsean, eragiten badio.

Gizartekintza Sailak, halaber, dirulaguntzak emakidatu diren helburuetarako erabili eta egokitu direnentz ikuskatzeko eta kontrolatzeko ahalmena gordeko du eta, horrenbestez, egokiesten dituen ebaluazio era eta kontrolkerak erabili ahal izango ditu. Honi dagokionez, erakunde eskatzaile guztiak, menpeko dituzten zentroak barne, ikuskatu ahal izango dira, bai eta dirulaguntzak emakidatu aurretik ere, indarreko arautegiari egokituak direla egiaztatzeko.

Dirulaguntzak jasotzen dituzten erakundeek, dirulaguntzaren xede izan diren jardueri buruzko publizitaterik egingo balute, jarduerok Bizkaiko Foru Aldundiko Gizartekintza Sailak diruz lagunduak direla agertarazi beharko dute publizitate horretan.



8. artikulua.—*Ordainketa*

Betebeharra aitortzen den unean nahiz ordainketa egitean, diruz lagundutako erakundeek beren zerga-betebeharretan zein Gizarte Segurantzakoetan ordainketak egunera arte ordainduta eduki beharko dituzte.

Dirulaguntzaren ordainketa osorik edo zati bitan egingo da, dirulaguntzaren izaeraren arabera.

9. artikulua.—*Zehapen-araubidea*

1. Onuradunak urriaren 14ko 10/97 Foru Arauko VII. tituluko II. kapituluan, "Laguntzen eta dirulaguntzen arloko urratze eta zehapenen araubidea" delakoan, kapituluan ezarritako urratzeetako bat egiten badu, zehapen espedientea ireki ondoren, zehapena jasango du, Zehatzeko Ahalgoaren Erabilerarako Prozedurari buruzko Araudia onetsi zuen abuztuaren 4ko 1.398/1993 Errege-Dekretuan xedaturikoaren arabera.

2. Zehapenak Gizartekintza Saileko foru diputatuak erabaki eta ezarriko ditu, bidezko zehapen espediente egin eta gero; prozeduraren instruktorea izendatzeko eskumena foru diputatuari dagokio. Espedienteari ofizioz hasiera eman ahal izango zaio, dirulaguntza emakidatu duen organoak, horrela denean, burututako ikerketaren ondorioz edo Ogasun eta Finantza Sailak eginiko finantza--kontrolari dagozkion jarduketan ondorioz.

Zehapenak ezartzeko erabakien aurka, administrazioarekiko auzibide-errekurtoa jarri ahal izango da, arau araupetzaile egokiei jarraiki.

3. *Zehapenak eta zehapenen mailaketa.*

Dirulaguntzak adjudikatu zaizkien erakundeek urriaren 14ko 10/97 Foru Arauan tipifikaturiko urratzeetatik bat, edozein, egiten badute, zehapena jasango dute, behar ez bezala lortu, ezarri edo frogatu gabeko kopurua hirukoitzearainoko kopuruko isunaren bitartez.

Gizartekintzako foru diputatuak, halaber, honako zehapenak ezarri ahal izango ditu:

- a) Bost urterainoko epean zehar, Foru Aldundiko sektore publikoaren dirulaguntzarik eta abalik lortzeko ahalbidea galtzea.
- b) Bost urterainoko epean zehar, Foru Aldundiko sektore publikoko edozein erakunderekin kontratuak egin ahal izateko debekapena.

Diruzko isunak ez du zerikusirik izango zilegi ez den eran lortutako kopurua itzuli behar izatearekin.

4. *Zehapenok kasu bakoitzaren arabera mailakatuko dira, ondokoak aintzat harturik:*

- a) Subjektuen asmo ona edo asmo txarra.
- b) Dirulaguntzen eta laguntzen arloan behin eta berriz eginiko urratzeak.
- c) Foru Administrazioaren ikerketa edo finantza-kontrolako jarduketak eragotzi, ukatu edo oztopatzea.

5. *Ordezko erantzukizuna.*

Urratutako betebeharrak betetzeko beraiei dagozkien beharrezko egintzak burutu ez, betebehar horiek ez-betetzek ahalbidetzen dituzten erabakiak hartu edo euren menpekoez ez-betetzek onartzen dituzten pertsona juridikoen administrazioaileak zehapenaren ordezkotzule izango dira.



10. artikulua.—Itzulketak

1. Emakidaturiko kopuruak frogatu beharra betetzen ez bada, dirulaguntza gezurrezko datuak aurkeztuz edo maulazko beste edozein jarduketaren bitartez, edo horretarako behar diren baldintzak bete gabe lortzen bada, eta emakidapeko helburuak betetzen ez badira, laguntza ezeztatzea dakarren arrazoia egongo da eta, dena dela, delako zenbatekoa itzuli beharko da, Gizartekintza Sailak agindeia egin ondoren, kopuruok ordaindu direnetiko berandutza korritua eskatuko delarik. Sail honek, agindeiari jaramonik egiten ez bazaio, premiamenduzko prozedura egokia eragingo du, horrez gain kasu bakoitzean egokiak diren jarduketa zibil, penal nahiz bestelakoak ere burutu ahalko badira ere.
2. Halaber, nazioko zein nazioarteko beste administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatu batzuen dirulaguntzak edo laguntzak ere badirelako, burutu beharreko jardueraren kostua gainditzen denean, lortutako gaindikina itzuli egingo da.
3. Emakidapeko dirulaguntzaren zati gastatu gabea ere itzuli egingo da, dirulaguntza jaso behar duen jardueraren kostua emakidatzerakoan kontuan harturiko aurrikuspenak baino txikiagoa denean.

11. artikulua.—Bidegabeko kobrantzak

1. Erakunde onuradunak, horretarako eskubiderik izan gabe, sortzapenak hartzen dituenean edo hartu beharko lituzkeenak baino handiagoak direnean, dirulaguntza bidegabeki kobratu dela ulertuko da.
2. Gizartekintzako sailburu den foru diputatuak eskumena du, kobrantza bidegabekoa dela eta, hala balegokio, ordainketen etendura eta delako dirulaguntzaren iraungipena ere adierazteko.
3. Bidegabeko kobrantzak daudenean, itzulketarako prozedura indarreko arautegian ezarritakoa izango da.

I. kapitulua

Ume, gazte, familia eta andrazkoei laguntza eman eta bergizarteratzeko dirulaguntzak

Atal bakarra

Entitate eta zentroi eusteko eta egitarauak eta jarduerak burutzeko dirulaguntzak

12. artikulua.—Helburua

Dirulaguntzok honako hauetarako erabiliko dira:

- a) Ume, gazte, familia eta andrazkoen kolektiboek laguntza eman eta bergizarteratzeko entitate eta zentroi eusteko.



- b) Aurreko lerroaldean aipatu gizarte taldeentzako egitarau eta jarduerak egiteko.

13. artikulua.—*Onuradunak*

- a) Andrazkoen kolektiboarentzako entitate eta zentroi eusteko eta egitarau eta jarduerak egiteko dirulaguntzen onuradunak Bizkaiko Lurralde Historikoko toki erakundeek eta erakunde publikoek nahiz irabazasmorik gabeko erakunde pribatuek ahal izango dute izan.
- b) Ume, gazte eta familia kolektiboentzako entitate eta zentroi eusteko eta egitarau eta jarduerak egiteko dirulaguntzen onuradunak irabazasmorik gabeko erakunde pribatuek ahal izango dute izan.
- c) Horien menpeko entitate eta zentroak beren beregi geldituko dira dirulaguntza hauetatik kanpo, beti ere:
- Beren plazetarik %50 baino gehiago erakunde jakin baten menpeko kide edo langileentzat, bai eta berauen senideentzat, utzi edo haietan sartzeko borondatea mugatzen dutenean.
 - Beren jarduerak osasun, kultura edo lan eta hezkuntzari doakien eremuaren barruan bakarrik dituztenean.
 - Faktura aurkeztutakoan Bizkaiko Foru Aldundiaren aurrekontuen pentzutan, adingabeok eta emakumezkoek betetako plazen kontzeptuan, plaza horien kostuaren zenbatekoa jasotzen dutenean, edo itundutako zerbitzuak direnean.
 - Hautzaindegi publiko eta pribatuak.
 - Ezkontza apurtu dela eta, familiaren barruko kideen arteko bitartekaritza zerbitzuak.
 - Aldi berean, abenduaren 17ko 124/96 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen Ume, Gazte eta Familiarekiko Gizarte-Hezkuntzako Esku-Hartze Planaren barruko egitarauetara berez dagozkien zentroi eutsi eta jarduerak burutzea dirulaguntzotatik kanpo geratu dira.

14. artikulua.—*Irizpideak eta lehentasunak*

Dirulaguntzok emakidatzeko, kontzeptu bakoitzaren barruko aurrekontuko zuzkiduraz gain, zuzkidura horren pentzutan hartutako betebeharrak baldintzatuz, hurrengo irizpide eta lehentasunak hartuko dira kontuan:

- a) Jarduera non egiten den, lurralde eremua, eta hartzen duen biztanleria.
- b) Jarduera horien hedadura soziala eta jardueren bideragarritasuna ebaluatzeko ahalbidea.
- c) Jarduera egitarauen osagai eraberritzaileak.
- d) Arrisku egoerako ume, gazte, familia eta emakumeenganako aurrearreta eta horien bergizarteratzea bultzatzera zuzendutako jarduerak.
- e) Gizarte arazo zehatzak dituzten emakumeei zuzen-zuzenean laguntzen dieten zerbitzuak, harrera-etxebizitzetara eta aholkularitza juridikoei hain zuzen ere.
- f) Prestakuntza egitarauen bitartez gazte eta emakume kolektiboen erabateko bergizarteratzea lortzera zuzendutako sustapen jarduerak.
- g) Ezkontza edo bikotea, baita senide bakarreko familia ere, apurtu ez denean, arrisku egoera eta hurrei babesa galtzeko egoera baztertzeko xedea duten familiako kideen arteko bitartekaritza zerbitzuak.
- h) Beren egitarauen garapenerako bolondres kopuru garrantzitsua izatea.



- i) Entitate eskatzaileek aurkeztutako proiektuen artean, kalitate maila bera ematen denean, euskararen erabilera.

15. artikulua.—Batzorde Teknikoa

6. artikuluan aipatu den Batzorde Teknikoak kide hauek izango ditu:

Batzordeburua:

- Gizartekintzaren Plangintza eta Kudeaketako zuzendari nagusia.

Batzordekideak:

- Ume, Gazte, Familia eta Andrazkoen Zerbitzuko burua.
–Ume eta Gazteen Erakunde Babes eta Familiartzeko Ataleko burua.
–Andrazkoen Ataleko burua.

Idazkaria:

- Batzordeko buruak izendatuko du, Ume, Gazte, Familia eta Andrazkoen Zerbitzuko teknikarien artean.

16. artikulua.—Eskatutako agiriak

a) Dirulaguntza eskabideak Gizartekintza Sailak emandako inprimaki ofiziala erabiliz aurkeztuko dira, eta entitate edo zentro bakoitzeko eskabide bana bete beharko da.

b) Eskabideekin batera agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- Entitateei/zentroei eusteko dirulaguntzak badira, dirulaguntza eskatzen den entitatearen/zentroaren ezaugarriak biltzen dituen memoria, dirulaguntza zertarako den adieraziz.
–Eskatutako dirulaguntza jarduerak egiteko bada, gainera «Dirulaguntza eskabidearen xedeko jardueren egitaraua» deritzon II. eranskina ere bete behar da. Entitateak/zentroak dirulaguntza eskatzen duen jarduera bakoitzeko II. eranskineko inprimaki bana bete beharko du.
–Onuradunen zerrenda, eredu ofizialaren arabera.
–Langile guztien izen-deituren zerrenda, eredu ofizialaren arabera, bakoitzaren lan harremanaren berri emanez, eginkizunak, ordainketak, dedikazioa eta bolondres kopurua eta bolondres horiek zertan diharduten.
–Eskatzailearen nortasuna eta eskabidea aurkezten duen pertsona juridikoaren izenean jarduteko ordezkaria dela egiaztatzen dituen agiria.
–Identifikazio fiskaleko txartelaren fotokopia egiaztatua.
–Behar bezala legeztutako estatutuen jatorrizkoa edo benetakoa dela egiaztatzen duen aldakia edo fotokopia egiaztatua.
–Entitatea administrazio erregistro egokian izena emana duela egiaztatzen duen agiria.
–Entitatearen patronatuko edo zuzendaritzako kideen identifikazioa, izendapeneko data eta zelan izan diren hautatuak agertarazten dituen ziurtagiria.
–Zerga-betebeharretan eta Gizarte Segurantzakoetan ordainketak egunera arte beteta dituela egiaztatzen duen frogagiria.



Entitateak zerga ondoreetarako aitortpena aurkeztu behar ez badu edo aurkeztu behar izatetik salbuetsita badago, edo Gizarte Segurantzaren alta eman behar ez badu, erakundea Ogasun Publikoari zergak ordaintzen dizkieten erregistroetan eta Gizarte Segurantzako afiliatuen eta bertan alta emanda daudenen erregistroetan ez dela azaltzen adierazten duten Administrazioaren ziurtagiri egokiez gain, entitatearen arduradunaren adierazpena, entitateak zerga edo Gizarte Segurantzaren ondoreetarako alta eman behar ez duela agertaraziz, aurkeztu beharko da.

- Erakundearen identifikazio fiskaleko kodearen datuak eta kontu korrontearen datuak agertarazten dituen fitxa, eredu ofizialaren arabera, banketxeak zigilua jarrita.
- Entitate eskatzailearen ekonomi datuak, eredu ofizialaren arabera (udalak eta mankomunitateak salbuetsita daude).
- Zentro eskatzailearen ekonomi datuak, eredu ofizialaren arabera.
- Lankidetzaren konpromisoa, eredu ofizialaren arabera.
- 1997ko abenduaren 31ko balantzea eta ekonomi egoera, eredu ofizialaren arabera.

17. artikulua.—Dirulaguntzen zenbatekoa

Irabazasmorik gabeko erakunde pribatuei emakidatutako andrazkoen eremuko dirulaguntzetariko bakoitzaren zenbatekoa ez da izango, sekula ere, eskatutako entitate/zentroari eustearen eta/edo eskatutako jardueren burutzapenaren guztizko kostuaren %40 baino handiagoa, toki erakunde eta erakunde publikoak muga honetatik kanpo utzi direlarik. Ume, gazte eta familia eremuan dirulaguntzaren zenbatekoaren muga guztizko kostuaren %60 izango da. Kapitulu honetan ezarritako dirulaguntzen zenbatekoa 14. artikuluan ezarritako irizpideen arabera finkatuko da, foru dekretu honen 5. artikuluko 1. ataleko muga gogoan izanik.

18. artikulua.—Ordainkerak

Ordainketa entitate edo zentro onuradunaren izenean egingo da, edozelan ere hurrengo beharkizunok betetzearen baldintzapean:

- a) Emango den kopurua oso-osoan erabiltzea, dirulaguntza eskuetsiko duen ebazpenean beren-beregi ezarritako xedeetarako.
- b) 7.2. artikuluan araupetutako agiriak aurkeztea, guztiak 1999ko lehen hiruhilekoaren barruan, aurkezteko epe hori, hori bidezkoesten duten kariak gertaturik, luzatu ahal izango bada ere.

19. artikulua.—Aurrekontuetako partida

Haur, gazte eta emakume taldeei zuzendutako dirulaguntzak hurrengo partidaren pentzutari banatuko dira: saila (03), atala (0302), egitaraua (310302), ekonomikoak (43203 eta 45100), mugatzat partida horretan dagoen kreditua izanik.



II. kapitulua

Adinekoei laguntza eman eta bergizarteratzeko dirulaguntzak

Lehen atala

Entitate eta zentroei eusteko eta egitarauak eta jarduerak egiteko dirulaguntzak

20. artikulua.—*Helburua*

Dirulaguntzok honako hauetarako erabiliko dira:

- a) Adinekoei laguntza eman eta adinekoak bergizarteratzeko entitate eta zentroei eusteko.
- b) Zentroek bultzatutako trebakuntza, zuzperketa eta bergizarteratzeko elkarte egitarau eta jarduerak.

Aldi berean, egoitza eta eguneko zentrozen bideragarritasun azterlanen gertuketari ere dirulaguntzarik eman ahal izango zaio.

21. artikulua.—*Onuradunak*

- a) Helbuetariko bat, besteak beste, adinekoentzako zerbitzu eta jarduerak burutzea duten Bizkaiko Lurralde Historikoko toki erakundeek eta erakunde publikoek nahiz irabazasmorik gabeko erakunde pribatuek, beti ere beren jarduketa eremua Bizkaiko Lurraldearen barruan dagoenean, eta horien menpeko zentroek ahal izango dute izan dirulaguntza hauen onuradun.
- b) Horien menpeko entitate eta zentroak beren beregi geldituko dira dirulaguntza hauetatik kanpo, beti ere:

–Jarduera nagusizat laguntza geriatrikoa, minusbaliatuen hezkuntza berezia edo laguntza psikiatrikoa dutenean.

–Beren plazetarik %50 baino gehiago erakunde jakin baten menpeko kide edo langileentzat, bai eta berauen senideentzat, utzi edo haietan sartzeko borondatea mugatzen dutenean.

–Beren jarduerak osasun, kultura edo lan eta hezkuntzari doakien eremuaren barruan bakarrik dituztenean.

22. artikulua.—*Irizpideak eta lehentasunak*

Dirulaguntzok emakidatzeko, kontzeptu bakoitzaren barruko aurrekontuko zuzkiduraz gain, zuzkidura horren pentzutuan hartutako betebeharrak baldintzatuz, hurrengo irizpide eta lehentasunak hartuko dira kontuan:

- a) Entitate eta zentroek burututako jarduera Bizkaiko Foru Aldundiak gai honi buruz ezarrita dituen gizarte zerbitzuen egitarauari egokituakoa izatea.
- b) Zentrozen bideragarritasun azterlanei lehentasuna emango zaie.
- c) Lehendabizi dagoeneko lanean ari diren eta bigarrenez sorkuntza berrikoak diren entitate eta zentroei emango zaie lehentasuna.



- d) Eskatzaile bik edo gehiagok helburu bera betetzeko eskabideak aurkezten badituzte, eta eskabide horietako egitarauak eta zerbitzuaren kalitatea berdinak direnean, lehentasun honi jarraitu zaio: lehenengo eta behin erakunde publikoak eta gero irabazasmorik gabeko erakunde pribatuak.
- e) Lehentasuna emango zaie laguntza behar duten adinekoei lagundu eta bideragarritasun azterlana egina duten egoitza edo eguneko zentroei.

23. artikulua.—Batzorde Teknikoa

6. artikuluan aipatu den Batzorde Teknikoak kide hauek izango ditu:

Batzordeburua:

- Gizartekintzaren Plangintza eta Kudeaketako zuzendari nagusia.

Batzordekideak:

- Adinekoen, Laguntza Berezi eta Oinarrizko Laguntzaren Zerbitzuko burua.
- Adinekoen Ataleko burua.

Idazkaria:

- Batzordeko buruak izendatuko du Adinekoen, Laguntza Berezi eta Oinarrizko Laguntzaren Zerbitzuko teknikarien artean.

24. artikulua.—Eskatutako agiriak

- a) Dirulaguntza eskabideak Gizartekintza Sailak emandako inprimaki ofiziala erabiliz aurkeztuko dira, eta entitate edo zentro bakoitzeko eskabide bana bete beharko da.
- b) Eskabideekin batera agiri hauek aurkeztu beharko dira:
- Egitarau edo/eta jardueren memoria, eredu ofizialaren arabera.
 - Egoitza eta eguneko zentroetako onuradunen zerrenda, eredu ofizialaren arabera.
 - Langile guztien izen-deituren zerrenda, eredu ofizialaren arabera, bakoitzaren lan harremanaren berri emanez, eginkizunak, ordainketak, dedikazioa eta bolondres kopurua eta bolondres horiek zertan diharduten.
 - Eskatzailearen nortasuna eta eskabidea aurkezten duen pertsona juridikoaren izenean jarduteko ordezkaria dela egiaztatzen dituen agiria.
 - Identifikazio fiskaleko txartelaren fotokopia egiaztatua.
 - Behar bezala legeztutako estatutuen jatorrizkoa edo benetakoa dela egiaztatzen duen aldakia edo fotokopia egiaztatua.
 - Entitatea administrazio erregistro egokian izena emana duela egiaztatzen duen agiria.
 - Entitatearen patronatuko edo zuzendaritzako kideen identifikazioa, izendapeneko data eta zelan izan diren hautatuak agertarazten dituen ziurtagiria.
 - Zerga-betebeharretan eta Gizarte Segurantzakoetan ordainketak egunera arte beteta dituela egiaztatzen duen frogagiria.

Entitateak zerga ondoretarako aitorpena aurkeztu behar ez badu edo aurkeztu behar izatetik salbuetsita badago, edo Gizarte Segurantzaz alta eman behar ez badu, erakundea Ogasun Publikoari zergak ordaintzen dizkieten erregistroetan eta Gizarte Segurantzako afiliatuen eta bertan alta emanda daudenen erregistroetan ez dela azaltzen adierazten duten Administrazioaren ziurtagiri egokiez gain, entitatearen



arduradunaren adierazpena, entitateak zerga edo Gizarte Segurantzaren ondoreetarako alta eman behar ez duela agertaraziz, aurkeztu beharko da.

–Erakundearen identifikazio fiskaleko kodearen datuak eta kontu korrontearen datuak agertarazten dituen fitxa, eredu ofizialaren arabera, banketxeak zigilua jarrita.

–Entitate eskatzailearen ekonomi datuak, eredu ofizialaren arabera (udalak eta mankomunitateak salbuetsita daude).

–Zentro eskatzailearen ekonomi datuak, eredu ofizialaren arabera.

–Lankidetzak konpromisoa, eredu ofizialaren arabera.

–1997ko abenduaren 31ko balantzea eta ekonomi egoera, eredu ofizialaren arabera.

25. artikulua.—Dirulaguntzen zenbatekoa

Kapitulu honetan ezarritako dirulaguntzen zenbatekoa 22. artikuluan ezarritako irizpideen arabera finkatuko da, foru dekretu honen 5. artikuluko 1. ataleko muga gogoan izanik.

26. artikulua.—Ordainkerak

Ordainketa entitate edo zentro onuradunaren izenean egingo da, edozelan ere hurrengo beharkizunok betetzearen baldintzapean:

- a) Emango den kopurua oso-osoan erabiltzea, dirulaguntza eskuetsiko duen ebazpenean beren beregi ezarritako xedeetarako.
- b) 7.2. artikuluan araupetutako agiriak aurkeztea, guztiak 1999ko lehen hiru hilabetearen barruan, aurkezteko epe hori, hori bidezkoesten duten kariak gertaturik, luzatu ahal izango bada ere, beti ere dirulaguntza emakidatzeko onetsi den ebazpenean horrelakorik aipatzen bada.

27. artikulua.—Aurrekontuetako partida

Entitate eta zentroei eutsi eta jarduerak egiteko dirulaguntzak hurrengo partidaren pentzutan banatuko dira: saila (03), atala (0302), egitaraua (310303), ekonomikoak (45100 eta 43203), mugatzat partida horretan dagoen kreditua izanik.

Bigarren atala Zahar etxe eta jubilatutako elkarteei eusteko eta egitarauak eta jarduerak egiteko dirulaguntzak

28. artikulua.—Helburua

Dirulaguntzok honako hauetarako erabiliko dira:

- a) Zahar etxe eta jubilatutako elkarteei eusteko.
- b) Zahar etxe eta jubilatutako elkarrekin bultzatutako trebakuntza, zuzperketa eta bergizarteratzeko elkarte egitarau eta jarduerak.



29. artikulua.—Onuradunak

- a) Helbuetariko bat, besteak beste, adinekoentzako zerbitzu eta jarduerak burutzea duten Bizkaiko Lurralde Historikoko toki erakundeek eta erakunde publikoek nahiz irabazasmorik gabeko erakunde pribatuek, beti ere beren jarduketa eremua Bizkaiko Lurraldearen barruan dagoenean, ahal izango dute izan dirulaguntza hauen onuradun.
- b) Hurrengo zahar etxe eta jubilatutako elkarte beren beregi geldituko dira dirulaguntza hauetatik kanpo, beti ere:
- Beren plazetarik %50 baino gehiago erakunde jakin baten menpeko kide edo langileentzat, bai eta berauen senideentzat, utzi edo haietan sartzeko borondatea mugatzen dutenean.
 - Beren jarduerak osasun, kultura edo lan eta hezkuntzari doakien eremuaren barruan bakarrik dituztenean.
- c) Halaber, zahar etxe edo/eta jubilatutako elkarten lokalen titulartasuna udalarena denean, lokal horien mantenua dirulaguntzotatik kanpo geldituko dira.

30. artikulua.—Irizpideak eta lehentasunak

Dirulaguntzok emakidatzeko, kontzeptu bakoitzaren barruko aurrekontuko zuzkiduraz gain, zuzkidura horren pentzutan hartutako betebeharrak baldintzatuz, hurrengo irizpide eta lehentasunak hartuko dira kontuan:

- a) Zahar etxe eta jubilatutako elkarteek burututako jarduera Bizkaiko Foru Aldundiak gai honi buruz ezarritako gizarte zerbitzuen egitarauari egokitutakoa izatea.
- b) Lehendabizi dagoeneko lanean ari diren eta bigarrenez sorkuntza berrikoak diren zahar etxe eta jubilatutako elkartei emango zaie lehentasuna.
- c) Eskatzaile bik edo gehiagok helburu bera betetzeko eskabideak aurkezten badituzte, eta eskabide horietako egitarauak eta zerbitzuaren kalitatea berdinak direnean, lehentasun honi jarraitu zaio: lehenengo eta behin erakunde publikoak eta gero irabazasmorik gabeko erakunde pribatuak.
- d) Jubilatutako elkarte, etxe edo taldeen barruan, etxea erabiltzen duten pertsonen kopurua eta etxean bultzatzen diren jarduerak gizartean duten eragina hartuko dira kontuan.
- e) Jubilatutako etxe edo taldeen jardueretan erabiliko den baremoa kostuaren %40ra arterainokoa izango da, eta jubilatutako etxe edo taldeak gastuaren gainerakoari aurre egiteko besteko ekonomi baliabideak dituela bermatu beharko du.

31. artikulua.—Batzorde Teknikoa

6. artikuluan aipatu den Batzorde Teknikoak kide hauek izango ditu:

Batzordeburua:

–Gizartekintzaren Plangintza eta Kudeaketako zuzendari nagusia.

Batzordekideak:

–Adinekoen, Laguntza Berezi eta Oinarrizko Gizarte Laguntzaren Zerbitzuko burua.

–Adinekoen Ataleko burua.



Idazkaria:

–Batzordeko buruak izendatuko du, Adinekoen, Laguntza Berezi eta Oinarrizko Gizarte Laguntzaren Zerbitzuko teknikarien artean.

32. artikulua.—Eskatutako agiriak

a) Dirulaguntza eskabideak Gizartekintza Sailak emandako inprimaki ofiziala erabiliz aurkeztuko dira, eta zahar etxe edo/eta jubilatuko elkarte bakoitzeko eskabide bana bete beharko da.

b) Eskabideekin batera agiri hauek aurkeztu beharko dira:

–Egitarau edo/eta jardueren memoria, eredu ofizialaren arabera.

–Eskatzailearen nortasuna eta eskabidea aurkezten duen pertsona juridikoaren izenean jarduteko ordezkaria dela egiaztatzen dituen agiria.

–Identifikazio fiskaleko txartelaren fotokopia egiaztatua.

–Behar bezala legeztutako estatutuen jatorrizkoa edo benetakoa dela egiaztatzen duen aldakia edo fotokopia egiaztatua.

–Entitatearen administrazio erregistro egokian izena emana duela egiaztatzen duen agiria.

–Entitatearen patronatuko edo zuzendaritzako kideen identifikazioa, izendapeneko data eta zelan izan diren hautatuak agertarazten dituen ziurtagiria.

–Zerga-betebeharretan eta Gizarte Segurantzakoetan ordainketak egunera arte beteta dituela egiaztatzen duen frogagiria.

Entitateak zerga ondoreetarako aitorpena aurkeztu behar ez badu edo aurkeztu behar izatetik salbuetsita badago, edo Gizarte Segurantzaren alta eman behar ez badu, erakundea Ogasun Publikoari zergak ordaintzen dizkieten erregistroetan eta Gizarte Segurantzako afiliatuen eta bertan alta emanda daudenen erregistroetan ez dela azaltzen adierazten duten Administrazioaren ziurtagiri egokiez gain, entitatearen arduradunaren adierazpena, entitateak zerga edo Gizarte Segurantzaren ondoreetarako alta eman behar ez duela agertaraziz, aurkeztu beharko da.

–Erakundearen identifikazio fiskaleko kodearen datuak eta kontu korrontearen datuak agertarazten dituen fitxa, eredu ofizialaren arabera, banketxeak zigilua jarrita.

–Sarrera eta gastuen laburpena, eredu ofizialaren arabera.

–Lankidetzaren konpromisoa, eredu ofizialaren arabera.

33. artikulua.—Dirulaguntzen zenbatekoa

Kapitulu honetan ezarritako dirulaguntzen zenbatekoa 30. artikuluan ezarritako irizpideen arabera finkatuko da, foru dekretu honen 5. artikuluko 1. ataleko muga gogoan izanik.

34. artikulua.—Ordainkerak

Ordainketa zahar etxe eta jubilatuko elkarte onuradunaren izenean egingo da, edozelan ere hurrengo beharkizunok betetzearen baldintzapean:

a) Emango den kopurua oso-osoan erabiltzea, dirulaguntza eskuetsiko duen ebazpenean beren-beregi ezarritako xedeetarako.



- b) 7.2. artikuluan araupetutako agiriak aurkeztea, guztiak 1999ko lehen hiruhilekoaren barruan, aurkezteko epe hori, hori bidezkoesten duten kariak gertaturik, luzatu ahal izango bada ere, beti ere dirulaguntza emakidatzeko onetsi den ebazpenean horrelakorik aipatzen bada.

35. artikulua.—Aurrekontuetako partida

Zahar etxe eta jubilatutako elkartei eusteko dirulaguntzak hurrengo partidaren pentzutan banatuko dira: saila (03), atala (0303), egitaraua (310303), ekonomikoak (45100 eta 43203), mugatzat partida horretan dagoen kreditua izanik.

Hirugarren atala

Adinekoentzako zentroetako inbertsioetarako dirulaguntzak

36. artikulua.—Helburua

Adinekoen zentroetarako dirulaguntzok honako hauetarako erabiliko dira:

- a) Zuzen-zuzenean adinekoentzako diren eraikin eta lokalei dagozkien proiektuak eta aurreproiektuak.
- b) Berrikuntzak. Berrikuntzat, instalazioak hobetu, ugaritu eta zerbitzu berrietarako moldatzea joko da.

Tramiterako udal jardueraren lizentzia edukitzea egiaztatzen duten eskabideak onartuko dira eta, baita ere, Eusko Jaurlaritzaren araupeketaren arabera, udal jardueraren lizentzia eta/edo, behar denean, zentroen egiaztapena lortzeko berrikuntza eskabidea aurkezten dutenenak.

- c) Altzari eta makineria ekipamenduak.

37. artikulua.—Onuradunak

- a) Bizkaiko Lurralde Historikoko toki erakundeak eta erakunde publikoak eta irabazasmorik gabeko erakunde pribatuak, beti ere beren jarduketa eremua Bizkaiko Lurralde Historikoaren barruan dagoenean eta jarduera adinekoen eremuan burutzen dutenean.
- b) Horien menpeko hurrengo entitate eta zentroak dirulaguntza hauetatik kanpo geldituko dira, beti ere:
 - Estatuaren edo Euskal Herriko Autonomi Elkartearen edo irabazasmoko aurrezki erakundeen menpekoak direnean.
 - Jarduera nagusitatzat osasun eta/edota hezkuntza mailako laguntza eskaintzea dutenean.
 - Beren plazetarik %50 baino gehiago, talde hauetarik edozeinentzat uzten dutenean:
 - Entitate bateko langileentzat edo/eta berauen senideentzat direnean.
 - Onarpen eskubidearen bitartez, sarrera askatasunari mugak ezartzen dizkietenean.
 - Beren jarduerak osasun, kultura, lan eta hezkuntza arloen berezko eremuan bakarrik burutzen dituztenean.



38. artikulua.—Irizpideak eta lehentasunak

Dirulaguntzok emakidatzeko, kontzeptu bakoitzaren barruko aurrekontuko zuzkiduraz gain, hurrengo irizpide eta lehentasunak ezarri dira:

- a) Gizartekintza Sailaren plangintza orokorrean zehazten diren zerbitzuak, egon dagoen zuzkidura maila kontuan hartuz.
- b) Erakunde publikoak eta irabazasmorik gabeko erakunde pribatuak, ordena horretan, bi proiektu daudenean.
- c) Lehentasuna emango zaiei aurreko ekitaldietan diruz lagunduak izan eta oraindik guztiz eraikita ez diren obrei.
- d) Zentroek homologaziorako behar-beharrezko betekizunak lortzera zuzendutako berrikuntzak.
- e) Baliatzen direnen plazak, halako plazen eskari eta beharrianari erantzuteko, laguntza beharrekoak direnen plaza bihurtzea.
- f) Eguneko zentroetako proiektu eta/edo aurreproiektuak, gizartean duten eragina dela bide.

39. artikulua.—Batzorde Teknikoa

6. artikuluan aipatu den Batzorde Teknikoak kide hauek izango ditu:

Batzordeburua:

–Gizartekintzaren Plangintza eta Kudeaketako zuzendari nagusia.

Batzordekideak:

–Adinekoen, Laguntza Berezi eta Oinarrizko Gizarte Laguntzaren Zerbitzuko burua.

–Adinekoen Ataleko burua.

Idazkaria:

–Batzordeko buruak izendatuko du, Adinekoen, Laguntza Berezi eta Oinarrizko Gizarte Laguntzaren Zerbitzuko teknikarien artean.

40. artikulua.—Eskatutako agiriak

Dirulaguntza eskabideak Gizartekintza Sailak Gran Via kaleko 26.ean, beheko solairuan, ematen duen inprimaki ofiziala erabiliz aurkeztuko dira, foru dekretu honetako 4. artikuluan oharmandakoarekin bat etorritz; gainera, memoria bat erantsiko da, eredu ofizialaren arabera formateatuta, dirulaguntza horretarako eskatzen den zentroaren funtsezko ezaugarriak, erakunde eskatzailearen ekonomi datuak, eredu ofizialaren arabera, eta proiektuaren zio eta berezitasunak nahiz dirulaguntzaren erabilerapeko xedeak barru hartzen dituena.

Epigrafe berberonetako jarraiko ataletan zehaztuko diren gainerako egiaztatagiriak dirulaguntzen adjudikatarioak gertatuko direnek bakarrik ekarri behar izango dituzte eta, honetara, adjudikatarioek, eman zaizkiela jakinarazi eta biharamunaz geroko hogeitaseko epearen barruan, agiri hauek aurkeztu behar izango dituzte:



1. *Agiri orokorrak:*

a) Erakunde eskatzailearen eskudun organoaren baimena:

–Toki erakundeak direnean, osoko bilkurak edo gobernu batzordeak, eskabidea eta dirulaguntzaren xedea, bai eta egin beharreko inbertsioa eta finantzaketa ere eskuesteko, hartuak dituen erabakien aldaki ziurtatua aurkeztuko da.

–Ongintza-fundazio partikularrak badira, organo artezkariak horretarako erabakitako baimena ekarriko da.

–Irabazasmorik gabeko elkarte eta erakunde pribatuek zuzendaritzako batzaren erabakia aurkeztuko dute.

b) Fitxa bat, eredu ofizialaren arabera, bertan erakundearen identifikazio fiskaleko kodearen eta banketxeak zigitatuko duen kontu korrontearen datuak agertuko dira; bai eta identifikazio fiskaleko txartelaren fotokopia ere.

c) Erakundearen eskudun organoaren erabakia, diruz lagundu nahi den zentroari eusteko, beronen helburua gutxienez hogeita hamar urteko denboraldirako aldatu gabe, konpromisoa.

2. *Bereziki, erakunde pribatuentzat zein ongintza-fundazio partikularrentzat:*

a) Eskudun organoak sinatuko duen agiria, eredu ofizialaren arabera, erakundearen ezaugarriak eta zerbitzuen kalitate egokia beti zainduko dituztela, zentro publikoetan ezin lagundu daitezkeen zerbitzuen eskaria asebetetzeko, laguntza emateko konpromisua hartzeko.

b) Eskudun organoak sinatuko duen agiria, erakunde eskatzailearen titulartasunaren menpeko ondare ondasun guztiak agertarazten dituena.

c) Erakunde eskatzaileak Gizarte Segurantzarekin dituen betebeharrak eta, baita ere, zergari dagozkionak ordainduta dituela agertarazten duen frogagiria.

3. *Bereziki proiektu eta aurreproiektuentzat.*

3.1. Aurreproiektuentzat, aurreproiektua bera.

3.2. Proiektuentzat:

a) Higiezinaren jabetza eta zamak eta kargak, horrelakorik dagoenean, egiaztatuko dituen Jabetza Erregistroaren ziurtagiria.

b) Onartutako hirigintza planek eta udal ordenantzek burutu nahi den obra egitea baimentzen dutela agertuko duen udalaren ziurtagiria.

4. *Zentroak handitu eta berritzeko planentzat, bereziki:*

a) Hurrengo xehetasunok dituen memoria zehaztua:

–Zertarako erabili nahi den eraikina

–Gizarte tipologia eta zenbat pertsonari eman nahi zaion laguntza.

–Egin nahi den zentroak laguntza burutu nahi duen alde edo eskualdeko beharriaren ebaluazioa.

–Burutu nahi diren jarduera, metodo eta lanen ezaugarri teknikoak.

–Zeintzuk diren giza eta lanbide baliabideak.

–Zentro edo zerbitzuari eusteko aurrikusitako finantzaketa.



Zentroa zati batez berritzea denean, aipaturiko memoriak harako berrikuntzetan eragina duten xehetasunak jartzera mugatuko da.

b) Arkitektu kolegiatu batek sinatutako proiektua, memoria barru duela, aurrekontuak, baldintzen plegua eta planoak. Dirulaguntza ematen denean, proiektua dagokion Arkitektoen Elkargoaren ikusonetsia izatea eskatuko da.

Egiteko diren obren ezaugarrien zioz, burutzeko planoak egiterik edo baldintza tekniko berezirik behar ez denean, nahikoa izango da aurrekontu zehatza eta obraren kontratari adjudikatariorak sinatutako memoria.

c) Obra burutzeko epea.

d) Higiezinaren jabea izatea eta, beharrezkoa denean, zama eta kargak egiaztatuko dituen Jabetza Erregistroan jasotako ziurtagiria.

e) Onartutako hirigintza planek eta udal ordenantzek burutu nahi den obra egitea ahalmentzen dutela agertuko duten udalaren ziurtagiria.

f) Burutzeko diren obrak utzitako edo errentan hartutako higiezinetan egitekoak direnean, jabearen baimena aurkeztu beharko da, harakoa egina izan deneko baldintzak agertuko dituela.

5. *Bereziki zentroen ekipamendua egiteko:*

a) Eskuratu nahi den ekipamenduaren premiari buruzko txosten teknikoa.

b) Gutxienez hiru etxe hornitzailek eginiko aurrekontua, egin nahi den eskuraketa bakoitzaren aleko kostuaren zenbatekoa eta guztizko zenbatekoa aditzera emanez.

41. artikulua.—Dirulaguntzen zenbatekoa

Kapitulu honetan ezarritako dirulaguntzen zenbatekoa 38. artikuluan ezarritako irizpideen arabera finkatuko da, foru dekretu honetako 5. artikuluko 1. ataleko muga gogoan izanik.

42. artikulua.—Ordainkera

Ordainketa erakunde eskatzaileari berari egingo zaio, kapitulu honen aurreko ataletan eskatutako agiriak, faktura frogagiriak eta dirulaguntza emakidapeko xedeetarako erabilia dela egiaztatzen duen beste edozein agiri Gizartekintza Sailera bidali ondoren.

Proiektuen kasuan, alde aurretik txostena, aurrekontuak, baldintzen plegua eta planoak barru izan eta arkitektu kolegiatuak sinatuta eta dagokion Arkitektoen Elkargoak ikusonetsitako proiektua aurkeztu eta gero ordainduko da.

43. artikulua.—Aurrekontuetako partida

Adinekoen Zentroetarako dirulaguntzak hurrengo partidaren pentzutan banatuko dira: saila (03), atala (0303), egitaraua (310303), ekonomikoak (73202 eta 75100), mugatzat partida horretan dagoen kreditua izanik.



III. kapitulua

Minusbaliatuei laguntza eman eta bergizarteratzeko dirulaguntzak

Lehen atala

Entitate eta zentroi eusteko eta egitarauak eta jarduerak burutzeko dirulaguntzak

44. artikulua.—*Helburua*

Dirulaguntzok honako hauetarako erabiliko dira:

- Minusbaliatuei laguntza eman eta bergizarteratzeko entitate eta zentroi eusteko eta egitarau eta jarduerak egiteko; eguneko zentroak, zereginetako zentroak eta egoitzak direnean, dirulaguntza itundu gabe daudenei emango zaie.
- Lan zentro berezietan minusbaliatuei laguntza eman eta bergizarteratzeko lanetan diharduten toki erakundeek, erakunde publikoek eta irabazasmorik gabeko erakunde pribatuek kudeatutako entitate eta zentroi eusteko.
- Aurreko lerroaldeetan adierazitako erakundeek gizarte talde horiei zuzenduta bultzatutako egitarau eta jarduerak egiteko.

45. artikulua.—*Onuradunak*

Honako hauek izan daitezke dirulaguntzon onuradun, beti ere behar bezala eskatzen badute:

- Aurreko artikuluan zehaztu diren xedeak dituzten Bizkaiko Lurralde Historikoko toki erakundeak, erakunde publikoak eta irabazasmorik gabeko erakunde pribatuak, baita horien menpeko itundu gabeko eguneko zentroak, zereginetako zentroak eta egoitzak ere, beti ere beren jarduera eremua Bizkaiko Lurralde Historikoaren barruan dagoenean.
- Lan zentro bereziak kudeatzen dituzten Bizkaiko Lurralde Historikoko toki erakundeak, erakunde publikoak eta irabazasmorik gabeko erakunde pribatuak. Aldi berean lan zentro bereziak ere dirulaguntzon onuradun izan daitezke, beren eraketa juridikoa edozelakoa izanik ere, beti ere zentro horien 100eko 100eko partaidetza irabazasmorik gabeko elkarteen eskuetan egon eta beren estatutuetan jardueraren mozkinak oso-osoan berriro zentroen berezko xedeak burutzeko inbertitzen badira.
- Horien menpeko entitate eta zentroak beren beregi geldituko dira dirulaguntza hauetatik kanpo, beti ere:
 - Jarduera nagusizat osasun edo/eta hezkuntzako laguntza ematea dutenean.
 - Beren plazetarik %50 baino gehiago erakunde jakin baten menpeko kide edo langileentzat, bai eta berauen senideentzat, utzi edo haietan sartzeko borondatea mugatzen dutenean.
 - Beren jarduerak osasun, kultura edo hezkuntzaren eremuaren barruan bakarrik dituztenean.



46. artikulua.—Irizpideak eta lehentasunak

Dirulaguntzok emakidatzeko, kontzeptu bakoitzaren barruko aurrekontuko zuzkiduraz gain, zuzkidura horren pentzutuan hartutako betebeharrak baldintzatuz, hurrengo irizpide eta lehentasunak ezarri dira:

- a) Laguntza eskaintzen zaion taldeko gaietako espezialista izatea.
- b) Antzeko zentro edo/eta egitarauen kudeaketako esperientzia. Lehentasuna emango zaie jadanik lanean diharduten zentro eta egitaraueri, beti ere sail honen laguntzak jasotzeagatik sortutako betebeharrak bete badituzte.
- c) Pertsona onuradunen minusbalia maila eta mota; lehentasuna emango zaie maila goragoko pertsoneri zuzendutako jardueri.
- d) Erakunde eskatzaileen kudeaketa gaitasuna eta proposatutako egitarauak finantzatzeko iturrien aniztasuna.
- e) Bolondresen partaidetza, beren jardueretan pertsona bolondresak trebatu eta hartzen dituzten egitaraueri lehentasuna emanez.
- f) Erakundeek gizartean duten elkartzeko eragina, bazkide kopurua alegia, talde batzuen ezaugarri bereziak kontuan hartuta.
- g) Aldi berean lehentasuna emango zaie hurrengo egitaraueri:
 - Lurralde eremu zabalagoa dutenei.
 - Antzeko ezaugarriak izanik, onuradun bakoitzeko koste gutxiago sortarazi eta onuradun kopuru zabalagoa hartzen dutenei.
 - Hainbat erakunderen artean aurkeztutakoei.
 - Eraberritzaileak direnei.

47. artikulua.—Batzorde Teknikoa

6. artikuluan aipatu den Batzorde Teknikoak kide hauek izango ditu:

Batzordeburua:

- Gizartekintzaren Plangintza eta Kudeaketako zuzendari nagusia.

Batzordekideak:

- Minusbaliatuen Zerbitzuko burua.
- Egitarau eta Laguntzen Ataleko burua.

Idazkaria:

- Batzordeko buruak izendatuko du, Minusbaliatuen Zerbitzuko teknikarien artean.

48. artikulua.—Eskatutako agiriak

a) Dirulaguntza eskabideak helburuaren araberako inprimaki ofizial berezian egingo dira. Itundu gabeko eguneko zentro, zereginetako zentro eta egoitzei eusteko eskabideak, baita lan zentro berezietan eustekoak ere, «1 zenbakiko minusbaliak» deritzen inprimakia erabiliz aurkeztu beharko dira.

Gainerakoetan eskabideetarako «2 zenbakiko minusbaliak» inprimakia erabiliko da.



Inprimaki biak Gizartekintza Sailak emango ditu, eta foru dekretu honetako 4. artikuluan xedatutakoaren arabera aurkeztuko dira. Kasu guztietan, hala ere, entitate edo/eta zentro bakoitzeko eskabide bana bete beharko da.

b) Eskabideekin batera agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- Egitarau edo/eta jardueren memoria, eredu ofizialaren arabera.
- Pertsona onuradunen zerrenda edo, behar izanez gero, aurrakusten den kopurua zenbatekoa izan daitekeen, eredu ofizialaren arabera, pertsona horiek parte hartzeko edo aukeratzeko erabili diren irizpide sozialak eta zentroaren edo egitarauaren erabiltzaileek egindako ekonomi ekarpena zehaztuz.
- Laguntza emango duten langileen izen-deituren zerrenda, eredu ofizialaren arabera, bakoitzaren lan harremanaren berri emanez, eginkizunak, ordainketak, dedikazioa eta bolondres kopurua eta bolondres horiek zertan diharduten.
- Eskatzailearen nortasuna eta eskabidea aurkezten duen pertsona juridikoaren izenean jarduteko ordezkaria dela egiaztatzen dituen agiria.
- Identifikazio fiskaleko txartelaren fotokopia egiaztatua.
- Behar bezala legeztutako estatutuen jatorrizkoa edo benetakoa dela egiaztatzen duen aldakia edo fotokopia egiaztatua.
- Entitatea administrazio erregistro egokian izena emana duela egiaztatzen duen agiria.
- Entitatearen patronatuko edo zuzendaritzako kideen identifikazioa, izendapeneko data eta zelan izan diren hautatuak agertarazten dituen ziurtagiria.
- Zerga-betebeharretan eta Gizarte Segurantzakoetan ordainketak egunera arte beteta dituela egiaztatzen duen frogagiria.

Entitateak zerga ondoreetarako aitortpena aurkeztu behar ez badu edo aurkeztu behar izatetik salbuetsita badago, edo Gizarte Segurantzaren alta eman behar ez badu, erakundea Ogasun Publikoari zergak ordaintzen dizkieten erregistroetan eta Gizarte Segurantzako afiliatuen eta bertan alta emanda daudenen erregistroetan ez dela azaltzen adierazten duten Administrazioaren ziurtagiri egokiez gain, entitatearen arduradunaren adierazpena, entitateak zerga edo Gizarte Segurantzaren ondoreetarako alta eman behar ez duela agertaraziz, aurkeztu beharko da.

- Erakundearen identifikazio fiskaleko kodearen datuak eta kontu korrontearen datuak agertarazten dituen fitxa, eredu ofizialaren arabera, banketxeak zigilua jarrita.
- Entitate eskatzailearen ekonomi datuak, eredu ofizialaren arabera (udalak eta mankomunitateak salbuetsita daude).
- Zentro eskatzailearen ekonomi datuak, eredu ofizialaren arabera.
- Lankidetzak konpromisoa, eredu ofizialaren arabera.
- 1997ko abenduaren 31ko balantzea eta ekonomi egoera, eredu ofizialaren arabera.

49. artikulua.—Dirulaguntzen zenbatekoa

Kapitulu honetan ezarritako dirulaguntzen zenbatekoa 46. artikuluan ezarritako irizpideen arabera finkatuko da, foru dekretu honetako 5. artikuluko 1. ataleko muga gogoan izanik.



50. artikulua.—Ordainkera

Ordainketa erakunde edo zentro onuradunari berari egingo zaio, eta beronek, edozelan ere, hurrengo beharkizunok bete beharko ditu:

- a) Emango den kopurua oso-osoan erabiltzea, dirulaguntza eskuetsiko duen ebazpenean beren-beregi ezarritako xedeetarako.
- b) 7.2. artikuluan araupetutako agiriak aurkeztea, guztiak 1999ko lehen hiru hilabetearen barruan. Irabazasmorik gabeko erakunde pribatuei, 30.000.000 pezeta baino gehiagoko zenbatekoko dirulaguntza jasotzen dutenean, ekitaldi horretako kontu auditoria eta bultzatu nahi den jardueraren bideragarritasun azterketa aurkez ditzaten eskatuko zaie.

51. artikulua.—Aurrekontuetako partida

Minusbaliatuei laguntza eman eta bergizarteratzeko entitate eta zentroi eusteko eta egitarau eta jarduerak egiteko dirulaguntzak hurrengo partidaren pentzutan banatuko dira: saila (03), atala (0304), egitaraua (310305), ekonomikoak (45100 eta 43200), mugatzat partida horretan dagoen kreditua izanik.

Bigarren atala

Minusbaliatuei laguntza eman eta bergizarteratzeko zentroetako inbertsioetarako dirulaguntzak

52. artikulua.—Helburua

Minusbaliatuei laguntza eman eta bergizarteratzeko zentroetarako dirulaguntzok honako hauetarako erabiliko dira:

- a) Zuzen-zuzenean minusbaliatu taldearentzako eraikin eta lokaletarako, eguneko zentroetarako eta egoitzetarako bereziki, diren eraikin eta lokalei dagozkien proiektuak eta aurreproiektuak.
- b) Berrikuntzak. Berrikuntzatzat, instalazioak hobetu, ugaritu eta zerbitzu berrietarako moldatzea joko da.

Tramiterako udal jardueraren lizentzia edukitzea egiaztatzen duten eskabideak onartuko dira eta, baita ere, udal jardueraren lizentzia lortzeko berrikuntza eskabidea aurkezten dutenenak.

- c) Altzari eta makineria ekipamenduak.

53. artikulua.—Onuradunak

- a) Helburuetariko bat, besteak beste, aurreko artikuluan aipatutakoak burutzea duten Bizkaiko Lurralde Historikoko toki erakundeek eta erakunde publikoek nahiz irabazasmorik gabeko erakunde pribatuek, beti ere beren jarduketara eremua Bizkaiko Lurraldearen barruan dagoenean, eta horien menpeko zentroek ahal izango dute izan dirulaguntza hauen onuradun.
- b) Horien menpeko entitate eta zentroak beren beregi geldituko dira dirulaguntza hauetatik kanpo, beti ere:



- Jarduera nagusizat osasun edo/eta hezkuntzako laguntza ematea dutenean.
- Beren plazetarik %50 baino gehiago erakunde jakin baten menpeko kide edo langileentzat, bai eta berauen senideentzat, utzi edo haietan sartzeko borondatea mugatzen dutenean.
- Beren jarduerak osasun, kultura edo hezkuntzaren eremuaren barruan bakarrik dituztenean.
- Estatuaren, Euskal Herriko Autonomi Elkartearen edo irabazasmoko aurrezki erakundeen menpekoak izatea.

54. artikulua.—Irizpideak eta lehentasunak

Dirulaguntzok emakidatzeko, kontzeptu bakoitzaren barruko aurrekontuko zuzkiduraz gain, hurrengo irizpide eta lehentasunak ezarri dira:

- Gizartekintza Sailaren planifikazio orokorrean zehaztutako zerbitzuak, egun dagoen egokitzapen maila gogoan izanik.
- Arkitektura langak baztertzea, jarduerak, segurtasuna, osasuna eta kontsumoa gaiei buruzko indarreko legeriarekiko egokitzapena.
- Eguneko zentroen edo/eta egoitzen proiektu edo aurreproiektuak, horiek gizartean duten eragina kontuan izanik.
- Maileguaren razionalizazioa laguntzen duten osagaien zuzkidura. Aldi berean, zentroak dituen informatika ekipo eta egitarauak ere baloratuko dira.
- Zentro eta egitarau sortu berrien egokitzapena edo/eta zuzkidura.

55. artikulua.—Batzorde Teknikoa

6. artikuluan aipatu den Batzorde Teknikoak kide hauek izango ditu:

Batzordeburua:

- Gizartekintzaren Plangintza eta Kudeaketako zuzendari nagusia.

Batzordekideak:

- Minusbaliatuen Zerbitzuko burua.
- Egitarau eta Laguntzen Ataleko burua.

Idazkaria:

- Batzordeko buruak izendatuko du, Minusbaliatuen Zerbitzuko teknikarien artean.

56. artikulua.—Eskatutako agiriak

Dirulaguntza eskabideak Gizartekintza Sailak Gran Via kaleko 26.ean, beheko solairuan, ematen duen inprimaki ofiziala erabiliz aurkeztuko dira, foru dekretu honetako 4. artikuluan ohartemandakoarekin bat etorriz; gainera, memoria bat erantsiko da, eredu ofizialaren arabera formateatuta, dirulaguntza horretarako eskatzen den zentroaren edo entitatearen funtsezko ezaugarriak, erakunde eskatzailearen ekonomi datuak, eredu ofizialaren arabera, eta proiektuaren zio eta berezitasunak nahiz dirulaguntzaren erabilerapeko xedeak barru hartzen dituena.

Epigrafe berberonetako jarraiko ataletan zehaztuko diren gainerako egiaztatagiriak dirulaguntzen adjudikatarioak gertatuko direnek bakarrik ekarri behar izango dituzte eta, honetara, adjudikatarioek,



eman zaizkiela jakinarazi eta biharamunaz geroko hogeitaz asteguneko epearen barruan, agiri hauek aurkeztu behar izango dituzte:

1. *Agiri orokorrak:*

a) Erakunde eskatzailearen eskudun organoaren baimena:

–Toki erakundeak direnean, osoko bilkurak edo gobernu batzordeak, eskabidea eta dirulaguntzaren xedea, bai eta egin beharreko inbertsioa eta finantzaketa ere eskuesteko, hartuak dituen erabakien aldaki ziurtatua aurkeztuko da.

–Ongintza-fundazio partikularrak badira, organo artezkariak horretarako erabakitako baimena ekarriko da.

–Irabazasmorik gabeko elkarte eta erakunde pribatuek zuzendaritzako batzaren erabakia aurkeztuko dute.

b) Fitxa bat, eredu ofizialaren arabera, bertan erakundearen identifikazio fiskaleko kodearen eta banketxeak zigilatuko duen kontu korrontearen datuak agertuko dira, fitxa horri identifikazio fiskaleko txartelaren fotokopia erantsiko zaio.

c) 500.000 pezeta baino gehiagoko zenbatekoko dirulaguntza jasotzen duenean, erakundearen eskudun organoaren erabakia, diruz lagundu nahi den zentroari eusteko, beronen helburua gutxienez hogeita hamar urteko denboraldirako aldatu gabe, konpromisoa.

2. *Bereziki irabazasmorik gabeko erakunde pribatu edo ongintza-fundazio partikularrentzat:*

a) Eskudun organoak sinatuko duen agiria, eredu ofizialaren arabera, erakundearen ezaugarriak eta zerbitzuen kalitate egokia beti zainduko dituztela, zentro publikoetan ezin lagundu daitezkeen zerbitzuen eskaria asebetetzeko, laguntza emateko konpromisua hartzeko.

b) Eskudun organoak sinatuko duen agiria, erakunde eskatzailearen titulartasunaren menpeko ondare ondasun guztiak agertarazten dituena.

c) Erakunde eskatzaileak Gizarte Segurantzarekin dituen betebeharrak eta, baita ere, zergari dagozkionak ordainduta dituela agertarazten duen frogagiria.

3. *Bereziki zentroak zabaldu edo berritzeko:*

a) Hurrengo datuok bilduko dituen memoria:

–Higiezina zertarako erabiliko den.

–Laguntza eman nahi zaien pertsonen gizarte tipologia eta zenbat pertsonari eman nahi zaion laguntza.

–Laguntza eman nahi den proiektuko zentroaren alde edo eskualdearen beharrezan ebaluazioa.

–Jardueren ezaugarri teknikoak, metodoak eta burutzeko lanak.

–Zentroak dituen giza eta lanbide baliabideak.

–Zentroari edo zerbitzuari eusteko finantzaketa aurrikuspenak.

Zentroa zati batez berritzea denean, aipaturiko memoriak harako berrikuntzetan eragina duten xehetasunak jartzera mugatuko da.



- b) Arkitektu kolegiatu batek sinatutako proiektua, memoria barru duela, aurrekontuak, baldintzen plegua eta planoak. Dirulaguntza ematen denean, proiektua dagokion Arkitektoen Elkargoaren ikusonetsia izatea eskatuko da.

Egiteko diren obren ezaugarrien zioz, burutzeko planoak egiterik edo baldintza tekniko berezirik behar ez denean, nahikoa izango da aurrekontu zehatza eta obraren kontratari adjudikatarioak sinatutako memoria.

- c) Obra burutzeko epea.
- d) Higiezinaren jabea izatea eta zama eta kargak, horrelakorik egonez gero, egiaztatuko dituen Jabetza Erregistroan jasotako ziurtagiria.
- e) Onartutako hirigintza planek eta udal ordenantzek burutu nahi den obra egitea ahalmentzen dutela agertuko duten udalaren ziurtagiria.
- f) Burutzeko diren obrak utzitako edo errentan hartutako higiezinetan egitekoak direnean, jabearen baimena aurkeztu beharko da, harakoa egina izan deneko baldintzak agertuko dituela.

4. *Bereziki zentroen ekipamendua egiteko:*

- a) Eskuratu nahi den ekipamenduaren premiari buruzko txosten teknikoa.
- b) Gutxienez hiru etxe hornitzailek eginiko aurrekontua, egin nahi den eskuraketa bakoitzaren aleko kostuaren zenbatekoa eta guztizko zenbatekoa aditzera emanez.

5. *Zehazki proiektu edo aurreproiektuetarako:*

- 5.1. Aurreproiektuetarako, agiria bera.
- 5.2. Proiektuetarako:
- a) Saltzailea higiezinaren jabea dela eta higiezinaren zama eta kargak, horrelakorik egonez gero, egiaztatuko dituen Jabetza Erregistroaren ziurtagiria.
- b) Zentroak bultzatu nahi duen jarduera burutzeko udal lizentzia egokiak badituela edo tramitazio bidean daudela, horrela izanez gero, egiaztatzen duen udal ziurtagiria.

57. artikulua.—Dirulaguntzen zenbatekoa

Kapitulu honetan ezarritako dirulaguntzen zenbatekoa dirulaguntzok zertan erabiliko diren, helburu horien premia alegia, eta 54. artikuluan ezarritako irizpide eta lehentasunen arabera finkatuko da, foru dekretu honetako 5. artikuluko 1. ataleko muga gogoan izanik.

58. artikulua.—Ordainkera

Ordainketa erakunde eskatzaileari berari egingo zaio zuzen-zuzenean, kapitulu honetako aurreko ataletan eskatutako agiriak, jatorrizko fakturak edo egiaztatutako aldakiak eta dirulaguntza obran erabili delako edo emakidatu deneko helburuetarako erabili dela egiaztatzen duen beste edozein agiri Gizartekintza Sailari igorri eta gero.

59. artikulua.—Aurrekontuetako partida

Minusbaliatuei laguntza eman eta bergizarteratzeko zentroetako inbertsioetarako dirulaguntzak hurrengo partidaren pentzutan banatuko dira: saila (03), atala (0304), egitaraua (310305), ekonomikoa (75100), mugatzat partida horretan dagoen kreditua izanik.



IV. kapitulua

Laguntza berezia behar duen multzoari laguntza eman eta bergizarteratzeko dirulaguntzak

Lehen atala

Entitate eta zentroi eusteko eta egitarauak eta jarduerak egiteko dirulaguntzak

60. artikulua.—*Helburua*

Dirulaguntzok honako hauetarako erabiliko dira:

- a) Laguntza berezia behar duen taldeei, hau da, baztertutakoei edo gizarteko behartsuenei, laguntza eman eta bergizarteratzeko entitate eta zentroi eusteko.
- b) Laguntza berezia behar duen talde horiei zuzendutako autolaguntza, trebakuntza, zuzperketa eta bergizarteratzeko egitarau eta jarduerak egiteko.

61. artikulua.—*Onuradunak*

a) Helburuetariko bat, besteak beste, aurreko a) eta b) lerroetan aipatu egitarau eta jarduerak burutzea duten Bizkaiko Lurralde Historikoko toki erakundeek eta erakunde publikoek nahiz irabazasmorik gabeko erakunde pribatuek, beti ere beren jarduketa eremua Bizkaiko Lurraldearen barruan dagoenean, eta horien menpeko zentroek ahal izango dute izan dirulaguntza hauen onuradun.

b) Horien menpeko entitate eta zentroak beren beregi geldituko dira dirulaguntza hauetatik kanpo, beti ere:

- Jarduera nagusizat osasun edo/eta hezkuntza laguntza dutenean.
- Beren plazetarik %50 baino gehiago erakunde jakin baten menpeko kide edo langileentzat, bai eta berauen senideentzat, utzi edo haietan sartzeko borondatea mugatzen dutenean.
- Beren jarduerak osasun, kultura edo lan eta hezkuntzari doakien eremuaren barruan bakarrik dituztenean.

62. artikulua.—*Irizpideak eta lehentasunak*

Dirulaguntzok emakidatzeko, kontzeptu bakoitzaren barruko aurrekontuko zuzkiduraz gain, zuzkidura horren pentzutari hartutako betebeharrak baldintzatuz, hurrengo irizpide eta lehentasunak ezarri dira:

- a) Entitate eta zentroek bultzatutako jarduera Bizkaiko Foru Aldundiak gai honi buruz ezarritako gizarte zerbitzuen egitarauari egokituta egotea.
- b) Jardueraren eta laguntza ematen zaien pertsonen garapeneko lurralde eremua.
- c) Jarduera horren hedadura soziala eta jardueren bideragarritasuna ebaluatzeko ahalbidea.
- d) Proiektu berriei dirulaguntzak ematearen aldean, lehentasuna emango zaio jadanik garatzen ari diren proiektuen egonkortasuna bultzatzei, erakundearen eraginkortasuna, eragingarritasuna eta profesionalizazioa baloratuz.



- e) Lehenetsuna emango zaie egitarau hau osatzen duten taldeei zuzen-zuzenean laguntza ematen dien egitarau eta jardueri, zehazki egoitza zentroi eta harrera-etxebizitzei, eguneko zentroi eta zereginetako zentroi.
- f) Laguntza berezia osatzen duten taldeei zuzen-zuzenean zuzendutako autolaguntza, trebakuntza, zuzperketa eta bergizarteratze jardueren burutzapena.

63. artikulua.—Batzorde Teknikoa

6. artikuluan aipatu den Batzorde Teknikoak kide hauek izango ditu:

Batzordeburua:

- Gizartekintzaren Plangintza eta Kudeaketako zuzendari nagusia.

Batzordekideak:

- Adinekoen, Laguntza Berezi eta Oinarrizko Laguntzaren Zerbitzuko burua.
- Laguntza Berezia Ataleko burua.

Idazkaria:

- Batzordeko buruak izendatuko du Adinekoen, Laguntza Berezi eta Oinarrizko Laguntzaren Zerbitzuko teknikarien artean.

64. artikulua.—Eskatutako agiriak

- a) Dirulaguntza eskabideak Gizartekintza Sailak emandako inprimaki ofiziala erabiliz aurkeztuko dira, eta entitate edo zentro bakoitzeko eskabide bana bete beharko da.
- b) Eskabideekin batera agiri hauek aurkeztu beharko dira:
- Entitatearen memoria.
 - Egitarau edo/eta jardueren memoria, eredu ofizialaren arabera.
 - Egoitza eta eguneko zentroetako eta zereginetako zentroetako onuradunen zerrenda, eredu ofizialaren arabera.
 - Langile guztien izen-deituren zerrenda, eredu ofizialaren arabera, bakoitzaren lan harremanaren berri emanez, eginkizunak, ordainketak, dedikazioa eta bolondres kopurua eta bolondres horiek zertan diharduten.
 - Eskatzailearen nortasuna eta eskabidea aurkezten duen pertsona juridikoaren izenean jarduteko ordezkaria dela egiaztatzen dituen agiria.
 - Identifikazio fiskaleko txartelaren fotokopia egiaztatua.
 - Behar bezala legeztutako estatutuen jatorrizkoa edo benetakoa dela egiaztatzen duen aldakia edo fotokopia egiaztatua.
 - Entitatea administrazio erregistro egokian izena emana duela egiaztatzen duen agiria.
 - Entitatearen patronatuko edo zuzendaritzako kideen identifikazioa, izendapeneko data eta zelan izan diren hautatuak agertarazten dituen ziurtagiria.
 - Zerga-betebeharretan eta Gizarte Segurantzakoetan ordainketak egunera arte beteta dituela egiaztatzen duen frogagiria.



Entitateak zerga ondoreetarako aitopena aurkeztu behar ez badu edo aurkeztu behar izatetik salbuetsita badago, edo Gizarte Segurantzaren alta eman behar ez badu, erakundea Ogasun Publikoari zergak ordaintzen dizkieten erregistroetan eta Gizarte Segurantzako afiliatuen eta bertan alta emanda daudenen erregistroetan ez dela azaltzen adierazten duten Administrazioaren ziurtagiri egokiez gain, entitatearen arduradunaren adierazpena, entitateak zerga edo Gizarte Segurantzaren ondoreetarako alta eman behar ez duela agertaraziz, aurkeztu beharko da.

–Erakundearen identifikazio fiskaleko kodearen datuak eta kontu korrontearen datuak agertarazten dituen fitxa, eredu ofizialaren arabera, banketxeak zigilua jarrita.

–Entitate eskatzailearen ekonomi datuak, eredu ofizialaren arabera (udalak eta mankomunitateak salbuetsita daude).

–Lankidetzak konpromisoa, eredu ofizialaren arabera.

–1997ko abenduaren 31ko balantzea eta ekonomi egoera, eredu ofizialaren arabera.

65. artikulua.—Dirulaguntzen zenbatekoa

Kapitulu honetan ezarritako dirulaguntzen zenbatekoa 62. artikuluan ezarritako irizpideen arabera finkatuko da, foru dekretu honen 5. artikuluko 1. ataleko muga gogoan izanik.

66. artikulua.—Ordainkerak

Ordainketa entitate edo zentro onuradunaren izenean egingo da, edozelan ere hurrengo beharkizunok betetzearen baldintzapean:

a) Emango den kopurua oso-osoan erabiltzea, dirulaguntza eskuetsiko duen ebazpenean beren-beregi ezarritako xedeetarako.

b) 7.2. artikuluan araupetutako agiriak aurkeztea, guztiak 1999ko lehen hiru hilabetearen barruan, aurkezteko epe hori, hori bidezkoesten duten kariak gertaturik, luzatu ahal izango bada ere.

67. artikulua.—Aurrekontuetako partida

Laguntza berezia behar duen taldeei laguntza eman eta bergizarteratzeko entitate eta zentroi eusteko eta egitarau eta jarduerak egiteko dirulaguntzak hurrengo partidaren pentzutan banatuko dira: saila (03), atala (0303), egitaraua (320301), ekonomikoak (45100 eta 43203), mugatzat partida horretan dagoen kreditua izanik.



Bigarren atala Laguntza bereziaren eremuko entitate eta zentroetako inbertsioetarako dirulaguntzak

68. artikulua.—*Helburua*

Dirulaguntza hauek laguntza berezia behar duen taldeei, hau da, baztertutakoei edo gizarteko behartsuenei, laguntza eman eta bergizarteratzeko zentroek eskuraketak, zabalkuntzak, berrikuntzak eta ekipamenduak lortu eta egin ditzaten emakidatuko dira.

69. artikulua.—*Onuradunak*

- a) Helbuetariko bat, besteak beste, laguntza berezia behar duen taldeei, hau da, baztertutakoei edo gizarteko behartsuenei laguntza eman eta talde horiek bergizarteratzea duten irabazasmorik gabeko erakunde pribatuek, beti ere beren jarduketa eremua Bizkaiko Lurraldearen barruan dagoenean, eta horien menpeko zentroek ahal izango dute izan dirulaguntza hauen onuradun, dirulaguntzok eskatzen badituzte.
- b) Horien menpeko entitate eta zentroak beren beregi geldituko dira dirulaguntza hauetatik kanpo, beti ere:
- Jarduera nagusizat laguntza osasun edo/eta hezkuntza laguntza dutenean.
 - Beren plazetarik %50 baino gehiago erakunde jakin baten menpeko kide edo langileentzat, bai eta berauen senideentzat, utzi edo haietan sartzeko borondatea mugatzen dutenean.
 - Beren jarduerak osasun, kultura edo lan eta hezkuntzari doakien eremuaren barruan bakarrik dituztenean.

70. artikulua.—*Irizpideak eta lehentasunak*

Dirulaguntzok emakidatzeko, kontzeptu bakoitzaren barruko aurrekontuko zuzkiduraz gain, hurrengo irizpide eta lehentasunak ezarri dira:

- a) Entitate eta zentroek Foru Aldundiak Bizkaiko Lurralde Historikoan ezarritako gizarte zerbitzuen egitaragintzari egokitu behar zaizkio.
- b) Jardueraren eta laguntza ematen zaien pertsonen garapeneko lurralde eremua.
- c) Lehentasuna emango zaio harrera etxebizitzek eta egoitzek egitaraua osatzen duten taldeei emandako laguntzari.
- d) Entitateek eta zentroek, proposatutako jarduerak burutu ahal izateko, inbertsioa beharrezkoa izatea, eraginkortasun, eragingarritasun, optimizazio eta bikoizketa-baztertze irizpideak gogoan izanik.
- e) Lehentasuna emango zaie aurreko ekitaldietan dirulaguntzaren bat jaso eta eskuratu, zabaldu, berritu edo ekipamendua lortzeko proiektu horiek guztiz burutu ezin izan dituzten entitate eta zentroi.

71. artikulua.—*Batzorde Teknikoa*

6. artikuluan aipatu den Batzorde Teknikoak kide hauek izango ditu:

Batzordeburua:



–Gizartekintzaren Plangintza eta Kudeaketako zuzendari nagusia.

Batzordekideak:

–Adinekoen, Laguntza Berezi eta Oinarrizko Laguntzaren Zerbitzuko burua.

–Laguntza Berezia Ataleko burua.

Idazkaria:

–Batzordeko buruak izendatuko du, Adinekoen, Laguntza Berezi eta Oinarrizko Laguntzaren Zerbitzuko teknikarien artean.

72. artikulua.—Eskatutako agiriak

Dirulaguntza eskabideak Gizartekintza Sailak Gran Via kaleko 26.ean, beheko solairuan, ematen duen inprimaki ofiziala erabiliz aurkeztuko dira, foru dekretu honetako 4. artikuluan oharmandakoarekin bat etorritz; gainera, memoria bat erantsiko da, eredu ofizialaren arabera formateatuta, dirulaguntza horretarako eskatzen den zentroaren funtsezko ezaugarriak, erakunde eskatzailearen ekonomi datuak, eredu ofizialaren arabera, eta proiektuaren zio eta berezitasunak nahiz dirulaguntzaren erabilerapeko xedeak barru hartzen dituena.

Epigrafe berberonetako jarraiko ataletan zehaztuko diren gainerako egiaztatagiriak dirulaguntzen adjudikatarioak gertatuko direnek bakarrik ekarri behar izango dituzte eta, honetara, adjudikatarioek, eman zaizkiela jakinarazi eta biharamunaz geroko hogeitaz asteguneko epearen barruan, agiri hauek aurkeztu behar izango dituzte:

1. *Agiri orokorrak:*

a) Erakunde eskatzailearen eskudun organoaren baimena:

–Ongintza-fundazio partikularrak badira, organo artezkariak horretarako erabakitako baimena ekarriko da.

–Irabazasmorik gabeko elkarte eta erakunde pribatuek zuzendaritzako batzaren erabakia aurkeztuko dute.

b) Fitxa bat, eredu ofizialaren arabera, bertan erakundearen identifikazio fiskaleko kodearen eta banketxeak zigitatuko duen kontu korrontearen datuak agertuko dira.

c) 500.000 pezeta baino gehiagoko zenbatekoko dirulaguntza jasotzen duenean, erakundearen eskudun organoaren erabakia, diruz lagundu nahi den zentroari eusteko, beronen helburua gutxienez hogeita hamar urteko denboraldirako aldatu gabe, konpromisoa.

d) Eskudun organoak sinatuko duen agiria, eredu ofizialaren arabera, erakundearen ezaugarriak eta zerbitzuen kalitate egokia beti zainduko dituztela, zentro publikoetan ezin lagundu daitezkeen zerbitzuen eskaria asebetetzeko, laguntza emateko konpromisua hartzeko.

e) Eskudun organoak sinatuko duen agiria, erakunde eskatzailearen titulartasunaren menpeko ondare ondasun guztiak agertarazten dituena.

f) Erakunde eskatzaileak Gizarte Segurantzarekin dituen betebeharrak eta, baita ere, zergari dagozkionak ordainduta dituela agertarazten duen frogagiria.

2. *Bereziki higiezinak eskuratzeko:*

a) Hurrengo datuok bilduko dituen memoria:

–Higiezinaz zertarako erabiliko den.



–Laguntza eman nahi zaien pertsonen gizarte tipologia eta zenbat pertsonari eman nahi zaion laguntza.

–Laguntza eman nahi den proiektuko zentroaren alde edo eskualdearen beharrianen ebaluazioa.

–Jardueren ezaugarri teknikoak, metodoak eta burutzeko lanak.

–Zentroak dituen giza eta lanbide baliabideak.

–Zentroari eusteko finantzaketa aurrikuspenak.

b) Saltzailea higiezinaren jabea dela eta higiezinaren zama eta kargak, horrelakorik badago, egiaztatuko dituen Jabetza Erregistroaren ziurtagiria.

c) Erostea aukeraren agiri egiaztatzaileak, bertan aukeraren prezioa, epea eta baldintzak aipatuko direlarik.

d) Zentroak bultzatu nahi duen jarduera burutzeko udal lizentzia egokiak badituela edo tramitazio bidean daudela, horrela izanez gero, egiaztatzen duen udal ziurtagiria.

3. *Bereziki zentroak zabaldu edo berritzeko:*

a) Zentroa zabaltzeko denean, «higiezinak eskuratzea»ri buruzko aurreko 2.a) atalean adierazitako zehaztasunak biltzen dituen memoria. Zentroa zati batez berritzea denean, aipaturiko memoriak harako berrikuntzetan eragina duten xehetasunak jartzera mugatuko da.

b) Arkitektu kolegiatu batek sinatutako proiektua, memoria barru duela, aurrekontuak, baldintzen plegua eta planoak. Dirulaguntza ematen denean, proiektua dagokion Arkitektoen Elkargoaren ikusonetsia izatea eskatuko da.

Egiteko diren obraren ezaugarrien zioz, burutzeko planoak egiterik edo baldintza tekniko berezirik behar ez denean, nahikoa izango da aurrekontu zehatza eta obraren kontratari adjudikatarioak sinatutako memoria.

c) Obra burutzeko epea.

d) Higiezinaren jabea izatea eta zama eta kargak, horrelakorik egonez gero, egiaztatuko dituen Jabetza Erregistroan jasotako ziurtagiria.

e) Onartutako hirigintza planek eta udal ordenantzek burutu nahi den obra egitea ahalmentzen dutela agertuko duten udalaren ziurtagiria.

f) Burutzeko diren obrak utzitako edo errentan hartutako higiezinetan egitekoak direnean, jabearen baimena aurkeztu beharko da, harakoa egina izan deneko baldintzak agertuko dituela.

4. *Bereziki zentroen ekipamendua egiteko:*

a) Eskuratu nahi den ekipamenduaren premiari buruzko txosten teknikoa.

b) Gutxienez hiru etxe hornitzailek eginiko aurrekontua, egin nahi den eskuraketa bakoitzaren aleko kostuaren zenbatekoa eta guztizko zenbatekoa aditzera emanez.

73. artikulua.—Dirulaguntzen zenbatekoa

Kapitulu honetan ezarritako dirulaguntzen zenbatekoa dirulaguntzok zertan erabiliko diren, helburu horien premia alegia, eta 70. artikuluan ezarritako irizpide eta lehentasunen arabera finkatuko da, foru dekretu honetako 5. artikuluko 1. ataleko muga gogoan izanik.



74. artikulua.—Ordainkera

Ordainketa erakunde eskatzaileari edo zentro onuradunari berari egingo zaio zuzen-zuzenean, kapitulu honetako aurreko ataletan eskatutako agiriak, fakturen frogagiriak edo dirulaguntza emakidatu zen helburuetarako erabili dela egiaztatzen duen beste edozein agiri Gizartekintza Sailari igorri eta gero.

75. artikulua.—Aurrekontuetako partida

Laguntza bereziko taldeei laguntza eman eta bergizarteratzeko zentroetako inbertsioetarako dirulaguntzak hurrengo partidaren pentzutari banatuko dira: saila (03), atala (0303), egitaraua (320301), ekonomikoa (75100), mugatzat partida horretan dagoen kreditua izanik.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Bakarra.—Foru dekretu hau, harik eta 1999ko ekitaldirako dirulaguntzei dagozkien deialdi publikoak onetsi eta aipatu urteko ekonomi ekitaldirako Bizkaiko Lurralde Historikoaren aurrekontu orokorretan, onetsiak izan eta gero, dirulaguntzen ordainketari aurre egiteko beharrezkoak diren zainpeketak egon arte luzatua izan dela ulertuko da, horrela, Gizartekintza Sailak, delako gizarte-zerbitzuari eutsiko bazaio, dirulaguntzaren ordainketari ezinbestekoa deritzon, dirulaguntzon ordainketa 1999. urtean zehar behin-behingozi ziurtatzeko, aurretik aurrerakin eskabideak, eredu ofizialaren arabera, aurkeztu eta gero.

Luzapenaren ondorioz egindako ordainketak, behar izanez gero, Bizkaiko Foru Aldundiaren 1999ko ekitaldiko era eta izaera bereko dirulaguntzetarako deialdi publikoari buruzko ebazpenean kontuan hartuko dira, bidezko erregularizazioaren eta konpentsazioaren ondorioetarako.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Bakarra.—Indargabetu egin dira foru dekretu honetan xedatutakoaren aurkakoak diren lerrun bereko nahiz beheragoko xedapen guztiak.



Bizkaiko Foru
Aldundia

Gizartekintza Saila

Diputación Foral
de Bizkaia

Departamento de Acción Social

Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 3ko 18/1998 FORU
DEKRETUA, Bizkaiko Foru Aldundiaren gizarte zerbitzuen
arloko 1998rako dirulaguntzen deialdi publikoa onetsiko duena.

AZKEN XEDAPENAK

Lehena.—Ahalmena ematen zaio Gizartekintzako sailburu den foru diputatuari foru dekretu honetan xedatutakoa garatu, betearazi eta ezartzeko behar diren xedapen guztiak eman ditzan.

Bigarrena.—Foru dekretu honetan xedatu gabeko guztian, sorospidez, Administrazio Publikoen eta Baterako Administrazio Prozeduraren Araubide Juridikoari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeko arau orokorrak eta baterako eta bidezko ezarpeneko indarreko legezko xedapenak aplikatuko dira.

Hirugarrena.—Foru dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean osorik argitara eman eta biharamunean jarriko da indarrean.

Bilbon emana, 1998ko martxoaren 3an.

Ahaldun nagusia,
JOSU BERGARA ETXEBARRIA

Gizartekintza Saileko foru diputatua,
INMACULADA LOROÑO ORMAECHEA